PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Larrasoañako Hobia

Larroasañako Hobia

Esteribarren dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Esteribar non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da, frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko bertan hil ziren.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin zuten.
Ia inork ez zuen muga gurutzatzea lortu.
Frankistek ihes egiten saiatu ziren
preso asko hil zituzten.

Paulina Lozoainek kontatu zuen
1938. urtean eskolatik itzultzen ari zen egun batean
entzun zuela Guardia Zibilak
San Kristobal Gotorlekutik
ihes egin zuten zenbait preso hil zituela.
Preso hauek Larrasoañan atxilotu zituzten.

Paulina hilerrira joan zen
eta ikusi zuen bere aitak eta beste bizilagunek
presoen gorpuak
hilerriaren kanpoaldean lurperatzen ari zirela.

Paulinari esker 2018ko ekainean
hobia aurkitu ahal izan zuten
eta 4 presoren gorpuzkiak desobiratu zituzten.

Nafarroako Gobernuko DNA Bankuari esker
hil zituzten 2 preso nor ziren jakin ahal izan dute:

- Leonicio de la Fuente Ramón
  Valladoliden dagoen
  Fresno el Viejon jaio zen.

- Emiliano Miguel Portugal
  Burgosen dagoen Santibáñez de Esguevan jaio zen
  eta Palencian dagoen Dueñasen bizi zen.

Esteka honetan Larrasoañako desobiratzearen
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/larrasoanako-hobia#landmark-video

Hemen desobiratzearen
argazki bat ikus dezakezu:

